



HERRIKO KONTSEILUKO ERABAKIA ORTZAIZEKO HERRIA

2024ko ekainaren 4ko bilkura

Bi mila eta hogeita lauko ekainaren lauan, arratseko zortzietan, Ortzaizeko Herri Biltzarra ohi bezala deitua izan-eta, legeak behartzen duen kopuruan bildu da, biltzarren ohiko lekuan, Jean-Marc OÇAFRAIN auzapeza lehendakari izanik,

Hor zirenak : CHAMALBIDE Corinne, DACHAGUER Peio, FALXA Odile, HEGUY Antton, IDIART Claudine, IÑARRA François, IRIART Jean Claude, JORAJURIA Ramuntxo, LEKUMBERRY Xantxo, MATEO Jean François, OÇAFRAIN Jean-Marc, PERUSANSENA Elodie.

Barkatuak zirenak : AYÇAGUER Elorri, CASIRIAIN Elena, GOICOECHEA Iñaki.

Bilkurako idazkari izendatua izan da : CHAMALBIDE Corinne.

Deialdiaren eguna : 2024ko maiatzaren 31

Afitxatze eguna : 2024ko maiatzaren 31

2. ERABAKIA: HERRIKO LANGILE BATEN FORMAKUNTZA GASTUETAN PARTE HARTZEA

(4.2. *nomēnklatura*)

Auzapezak oroitarazi du, Ortzaize herriak Marie TROUNDAY anderea kontratatu duela 2024ko otsailaren 1ean, ABLA gisa, postu hori okupatzen zuen langileak erretreta hartu baitu.

Langile berriak bere kabuz etxetiko formakuntza bat hasi du (CAP Accompagnant Educatif Petite Enfance).

Formakuntzak 2 905 € kostatzen du, eta langileak bi urtez hilabetero ordaintzen du.

Auzapezak Herri Biltzarrari proposatu dio herriak formakuntza erdia bere gain har dezan, hots 1 452,50 € (mila laurehun eta berrogeita hamabi euro eta berrogeita hamar zentimo).

Auzapezaren azalpen osagarriak entzunik eta deliberaturik,

Herri Biltzarrak,

ERABAKI DU, Marie TROUNDAY andereari 1 452,50 € ematea (mila laurehun eta berrogeita hamabi euro eta berrogeita hamar zentimo)

ZEHAZTU DU, kreditu nahikoa badela urteko aurrekontuan.

Kide kopurua : 15
Hor zirenen kopurua : 12
Balizko boz kopurua : 12
ALDE : 12
KONTRA : 0
ABSTENTZIO : 0

Gorago eman egun, hilabete eta urtean, presente ziren kideek erregistroa izenpetu dute.
Laburpen egiaztatuaren baliokoa.

ORTZAIZEN, 2024ko ekainaren 4an,

Auzapeza,
Jean-Marc OÇAFRAIN

Betegarria bilakatu den akta,
2024/06/11n publikatu edo notifikatu ondoan,
Eta Prefeturan pausatu ondoan 2024/06/11n.